




Apartamentu turistikoek urte hasiera ona izan dute

Gaualdiak apartamentu turistikoetan
Urte bakoitzeko apirila artekoa. Mila




Iturria: Eustat.

Apirilera arte, 130.400 gaualdi erregistratu ziren EAeko apartamentu turistikoetan. Gaualdi kopuru horrek esan nahi du %80,7ko igoera lortu dela aurreko urtearen aldean. Halaber, datuak daudenetik lehen lauhileko bateko kopururik handiena da, eta estatistika horrek pandemiaren aurretik erregistratzen zituen balioekiko jauzi kuantitatiboa islatzen du.

Industria prezioak %26,3 igo ziren apirilean

Industria prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Prezioen gorakadak bere horretan jarraitzen du, **eta apirilean industria-ko prezioek (IPRI) %26,3 egin zuten gora urte arteko tasan.** Igoera horren zati handi bat energiaren garestitzeak eragin du (%70,0), baina bitarteko ondasunek ere hazkunde handia izan zuten (%21,1). Gainerako ondasun multzoetan, igoera %5 ingurukoa izan da.



Eraikuntzaren kostua %11,9 garestitu zen

Eraikuntzaren kostuen indizea
Urte bakoitzeko apirila




Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren kostuak %11,9 handitu ziren apirilean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta. Kostuen artean, garestitzea bereziki handia izan da lehengaiekin lotura duten partidetan (%13,9). Laneskuak, ordea, igoera apalagoa izan du (%5,8) hileko horretan.

Eurogunearen hazkundera sendoa da oraindik

Euroguneako PMI konposatua
Indizea



Iturria: Markit.

Maiatzean, euroaren eremuko PMI konposatua 54,9 puntutan kokatu zen, hazkunde ekonomikoaren erritmo bizia adierazten duena. Hala ere, balio hori apirilekoa baino ia puntu bat txikiagoa da. Zerbitzuek sendotasuneko irudia erakusten dute (56,3), baina manufaktuek (51,2) hornidura falta adierazten dute.